

ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAREN ZERBITZURA "GOI-KARGUDUNAREN IDAZKARI" LANPOSTU BAT MODU MUGAGABEAN ESTALTZEKO HAUTAKETA PROZESUA EGITEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

LEHENENGOA.- ARAU OROKORRAK

1.1.- ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIA da Euskadiko sektore publikoan zibersegurtasuna sustatzeko eta koordinatzeko Eusko Jaurlaritzaren agentzia autonomikoa.

1.2.- Oinarri hauen helburua da goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat estaltzeko bideratuko den hautaketa-prozesua xedatuko duten arauak finkatzea.

1.3.- Hautaketa-prozesuaren helburua da oinarri hauek araututako hautaketa-prozesuko faseak gainditu ostean puntuazio onena duen pertsona aukeratzea deialdi irekiaren bidez, deialdirako onartu diren hautagai guztien artean.

1.4.- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa denez, nortasun juridiko propioa duena, eta bere jardura antolamendu juridiko pribatura egokitzen denez, bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasun osoa eta autonomia organikoa eta funtzionala ditu. Hori dela eta, langileen kontratazioa lan-zuzenbidearen araubidearen mende jartzen du, eta hautaketa deialdi publikoaren bidez egiten du, enplegu publikora sarbidea izateko printzipio konstituzionalen eta berdintasuneko, merezimenduko eta gaitasunen printzipioen arabera, Zibersegurtasuneko Euskal Agentzia sortu zueneko 2023ko ekainaren 29ko 7/2023 Legeak xedatutakoa betez (10. artikulua).

1.5.- Hautaketa-prozesua amaitzean, ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAKO Zuzendaritza Nagusiak aukeratutako hautagaia kontratatuko du.

BIGARRENA.- LANPOSTUAREN FUNTZIOAK

2.1.- Prozesuaren helburua da lan-kontratu mugagabea sinatzea, goi-kargudunaren idazkari lanpostua betetzeko lanaldiaren % 100ean eta, ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAK oro har ezartzen duen lan-ordutegian, betiere, lanpostuaren izaera eta beharrak kontuan hartuta.

Soldata urtean 35.250,73.-€ gordinetara izango da.

2.2.- Goi-kargudunaren idazkari lanpostua ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAren Zuzendaritza Nagusiaren arloan txertatuko da eta funtzio hauek izango ditu:

- Zuzendaritza Nagusiaren agenda kudeatzea eta Zuzendaritza horri lotutako administrazio-lanetan laguntza ematea.

- Zuzendaritza Nagusiari dagozkion komunikazioen kudeaketa-lanak egitea (telefonoa, e-maila, posta arrunta eta abar).
- Zuzendaritza Nagusiarekin bilerak egiteko Agentziara joaten diren pertsoneri arreta ematea.
- Administrazio-lanak kontrolatzea eta bere eskumeneko administrazio arloko prozesuen optimizazioaz arduratzea.
- Finantza eta administrazio arloko kudeaketa-lanak egitea prozesu operatiboan, aurrekontu-kontrolaren eta enpresa eta erakunde ofizialekiko barneko eta/edo kanpoko kudeaketa eta komunikazio ororen barruan.
- Litzitazio-prozesuetan parte hartzea eskatzen zaion eran.
- Bere jarduera arloan ezarritako ofimatika-tresnak eta kudeaketako edozein aplikazio informatiko erabiltzea.
- Kanpoarekin izan beharreko kontaktuetan, agentziaren irudi positiboa ematea eta bezeroa asebeteta uzten saiatzea.
- Lanarekin eta hobekuntzarekin lotutako iritzi eta iradokizunak ematea.
- Jarduera espezifikokoaren garapenarekin lotutako tresna eta sistema informatikoak erabiltzea.
- Zuzendaritzen garapena bultzatzea haietatik bideratutako zereginen bidez.
- Beste funtzio batzuk: Antzeko izaera eta prestakuntza eskatzen duten helburuak lortzeko beharrezko funtzioak betetzea.

HIRUGARRENA.- ESKAKIZUNAK.

Deialdian parte hartu nahi dutenek eskabide normalizatua aurkeztu beharko dute (oinarri hauei erantsita doana), eta beren sinaduraren bidez espresuki adierazi beharko dute deialdian eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela.

Nahitaezko baldintzak dira eta hautaketa-prozesu osoan mantendu beharko dira kontratua formalizatu arte:

a) Eskakizun orokorrak

1. Gutxienez 16 urte izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea.
2. Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea izatea edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio librea aplikagarri zaion estaturen bateko nazionalitatea izatea.

3. Epai edo diziplina-espediente bidez inongo administrazio publikoren edo sektore publikoko entitate edo enpresen zerbitzutik berezia, kendua edo desgaitua ez izatea, eta funtzio publikoak edo kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.

4. Lanpostuaren funtzioak betetzeko bateraezinak diren osasun-arazorik ez izatea. Baldintza hori ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAK erabakitako zerbitzu medikoak ziurtatu beharko du kontratazioa formalizatu aurretik.

Desgaitasuna duten pertsonak gainerako izangaien baldintza beretan onartuko dira hautaketa-probetan, baldin eta haien mugak deialdiko lanpostuari dagozkion eginkizun edo zereginak normaltasunez betetzeko bateraezinak ez badira.

Hautaketa-faseetarako behar diren denbora eta baliabide mailako egokitzapenak egingo dira, desgaitasuna duten interesdunek parte hartzeko eskabidean hala adierazten badute.

b) Gutxieneko eskakizun espezifikoak

- Prestakuntza: **Zuzendaritzako Idazkaritzako diplomatura edo gradu titulua** edo baliokidea.
- Euskara: **PL-3 edo C1 maila** edo baliokidea, titulu ofizial bidez egiazta daitekeena.
- Ingelesa: **PL-3 edo C1 maila** edo baliokidea, titulu ofizial bidez egiazta daitekeena.
- **Gidabaimena** indarrean. **B-2 kategoria edo klasea**, eta gidatzeko gaitasuna.
- **Gutxienez urtebeteko eskarmentua** antzeko funtzioak zituen lanpostuan.

Hori akreditatzeko, enpresak/ek edo administrazioak/ek egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Bertan zehaztuko da kontratuaren iraupena, dedikazioa eta lanpostuaren baitan izandako zereginak.

Aurreko eskakizunak (hautaketa-prozesuan parte hartzeko ezinbestekoak) betetzen dituztela egiaztatzen ez duten eskaerak ez dira onartuko.

LAUGARRENA.- ESKAERAK

4.1.- Prozesuan parte hartu nahi dutenek **eskabidean** adierazi beharko dute, oinarri hauen **ERANSKIN** gisa azaltzen den ereduaren arabera), eskatzen diren eta baloratzen diren prestakuntzari eta esperientziari buruzko erantzukizunpeko adierazpena eta horiek egiaztatzen dituen **dokumentazio erantsia**, ereduaren arabera.

Eskaera eta atxikitako dokumentazioa **helbide elektroniko** honetara bideratu beharko da: administrazioa@cyberzaintza.eus

ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAK erreserbatuta izango du aurkeztutako dokumentazioa/informazioa egiazkoa den egiaztatzeko eskubidea. Izangaiek egiazkoa ez den informazioa aurkezteak hautaketa-prozesutik baztertuta geratzea ekar dezake.

4.2.-Eskabideak, behar bezala beteta, 2024ko urtarrilaren 29a baino lehen aurkeztu beharko dira.

ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAK otsailaren 6a baino lehen igorriko du jaso izanaren adierazpeneko erantzuna izangai bakoitzari bidalitako mezu elektronikoz bidez.

4.3.- Hautaketa-prozesuan parte hartzea boluntarioa da eta beharrezkoa izango da ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAK hautaketa-prozesuaren helbururako izatera pertsonaleko datuak trata ditzan baimena ematea.

Eskaera aurkeztuta, izangaiek espresuki adieraziko dute hautaketa-prozesuaren helbururako datu pertsonalak tratatzearekin ados daudela.

4.4.-Eskaera aurkezteak deialdi hau arautzen duten oinarriak espresuki eta baldintzarik gabe onartzea dakar berekin.

BOSGARRENA.- ONARPENA.

5.1.- Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAK **onartutako eta baztertutako** izangaien **zerrenda** onartuko du. Zerrenda webgune honetan argitaratuko da: <https://www.ciberseguridad.eus/>.

Nolanahi ere, mezu elektronikoz bat bidaliko da, informazio gisa, izangaiek eskaeran emandako helbide elektronikora, izangaia prozesuan onartua izan dela edo, hala dagokionean, ez onartzeko arrazoia azalduz.

Hautaketa-prozesuan ez dira onartuko prozesuan parte hartzeko oinarrietan jasotako baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituztela egiaztatzen ez duten izangaiek.

5.2.- Onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onartuko duen ebazpenean zehaztuko da hautaketa-organismoaren osaera.

SEIGARRENA.- HAUTAKETA ORGANOA.

6.1.- Horretarako, hautaketa-organo bat eratuko da, eta hura izendatzeko garaian prestakuntza, gaitasun eta ahalmen egokiak dituzten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko da, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak errespetatuta.

6.2.- Hautaketa-organoak oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak argituko ditu eta prozesuaren fase bakoitza behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartuko ditu. Horrekin lotuta, oinarrietan aurrez ikusi gabeko kasuei dagokienez hartu beharreko irizpideak ezarriko ditu. Bestalde, fase bakoitzaren emaitzak balioztatu eta sor daitezkeen jazoerak argituko ditu.

Hautaketa-organoa partaideen kopuru bakoitiak osatuko du eta horien artean presidente bat eta kideak egongo dira. Kide edo batzordekide funtzioak beteko dituenak, aldi berean, idazkari zereginak bete ahal izango ditu. Hautaketa-organoko kideek, gainera, ordezkoak izango dituzte.

Horiek izendatzeko garaian, kideen egokitasuna eta prestakuntza bermatu beharko dira, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez jardungo baitute.

6.3.- Hautaketa-organoak egokitzat jotzen dituen aholkulariak edo enpresa espezializatuak gehitzea erabaki dezake, prozesuaren faseetan probak egiteko.

6.4.- Organo horren erabakiak bertan dauden botoen gehiengo bidez hartuko dira.

ZAZPIGARRENA.- PUBLIZITATEA.

Oro har, hautaketa-prozesu honetan zehar hautaketa-organoak egin ditzakeen iragarki-jakinazpenak, proba ugarietarako deialdiak, emaitzen argitalpena eta abar <https://www.ciberseguridad.eus/> webgunearen bidez egingo dira.

Oinarri hauekin lotutako azalpenak edo kontsultak helbide elektroniko honetara bideratu ahal izango dira: administrazioa@cyberzaintza.eus

ZORTZIGARRENA.- HAUTAKETA PROZESUAREN DISEINUA ETA BALORAZIOA.

8.1.- Honako hauek izango dira fase bakoitzeko gehieneko puntuazioak, hautaketa-prozesuaren faseak eta aplikagarriak diren ebaluazio-bitartekoak:

1. FASEA. SARTZEKO GUTXIENENKO ESKAKIZUNAK BETETZEA.

- Prestakuntza: Zuzendaritzako Idazkaritzako diplomatura edo gradu titulua edo baliokidea.
- Hizkuntzak:
 - Euskara: PL-3 edo C1 maila edo baliokidea, titulu ofizial bidez egiazta daitekeena.
 - Ingelesa: PL-3 edo C1 maila edo baliokidea, titulu ofizial bidez egiazta daitekeena.
- **Gidabaimena** indarrean. B-2 kategoria edo klasea, eta gidatzeko gaitasuna.
- Gutxienez urtebeteko eskarmentua antzeko funtzioak zituen lanpostuan (oinarrietan aurrez ikusitako moduan egiaztatu ahal izango da).

2. FASEA. MEREZIMENDUEN BALORAZIOA.

Gehieneko puntuazioa 34 puntu.

1.1. Prestakuntza eta hizkuntzak (24 puntu).

- a) Titulu akademiko hauetakoren bat izatea baloratuko da:
 - Lotura duten masterrak (nazioarteko idazkaritza, auditoria publikoa, protokoloa edo antzekoa) 3 puntu (gehienez 6 puntu)

- b) Euskara. Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Bateratuko C2 maila 2 puntu
- c) Ingelesa. Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Bateratuko C2 maila 2 puntu
- d) Beste hizkuntza batzuk:

B2 maila edo handiagoa egiaztatzen den hizkuntza bakoitzeko 0,5 puntu (gehienez 2 puntu)
- e) Administrazio elektronikoko ikastaroak: 0,01 puntu orduko (gehienez 4 puntu).
- f) Kontabilitateko ikastaroak: 0,01 puntu orduko (gehienez 4 puntu).
- g) Kontratazio publikoko ikastaroa: 0,01 puntu orduko (gehienez 4 puntu).

Aurreko merezimenduak egiaztatzeko, prozesuan parte hartzeko eskabideari erantsitako ziurtagiria edo titulua aurkeztu beharko da.

1.2. Esperientzia profesionala (10 puntu).

Deialdiko lanpostuarekin zerikusia duten zeregin eta eginkizunetan izandako **esperientzia** baloratuko da, eta **0,1 puntu** emango dira, enpresa pribatuko edo sektore publikoko entitateetako lanpostu berdinetan edo antzekoetan emandako eta egiaztatutako **hilabete oso bakoitzeko** (gutxienezko baldintza gisa eskatzen den urtebeteko alditik aurrera).

Esperientzia egiaztatzeko, prozesuan parte hartzeko eskabideari erantsitako aurkeztu beharko dira agiri hauek:

- Administrazioak/ek edo enpresak/ek emandako ziurtagiria/k, betetako lanpostua, kontratuaren iraupena, eginkizunak eta abar idatziz jasota.

3. FASEA. GAITASUN PROFESIONALAREKIN LOTUTAKO IRIZPIDEAK ETA PROBA INFORMATIKOA

Gaitasunen elkarrizketako gehieneko puntuazioa 20 puntu.

Hautaketa-organoak **2. fasean 10 puntuazio onenak lortu dituzten hautagaiei proba praktikoa eta elkarrizketa** egingo dizkie gertaera kritikoak direla eta argudiatutako esperientziari buruzko datuak egiaztatu eta handitu ahal izateko eta lanpostuaren profilararekin lotutako gaitasunak aztertzeko.

Elkarrizketa edo probara joateko deia jasotzen duten izangaiek *curriculum vitae*aren kopia bat bidali beharko dute administrazioa@cyberzaintza.eus helbide elektronikora elkarrizketarako jarritako ordua baino 24 ordu lehenago gutxienez.

Balorazioa:

- Gaitasun hauek baloratuko dira elkarrizketan: konfidentzialtasuna, komunikazioa, talde-lana, antolaketa eta plangintza; **puntuazio** honen arabera:

Lau gaitasunek balio berbera izango dute eta 1etik 5era bitarteko eskalaren arabera ebaluatuko dira. Kasu horretan, 1 puntu izango da puntuazio txikiena, eta 5 puntuazio handiena.

Horrenbestez, lor daitekeen gehieneko puntu kopurua 20 puntukoa izango da; izan ere, 4 gaitasun dira eta bakoitzean lor daitekeen puntuazio handiena 5koa da.

Escala de valoración: Desarrollo de la competencia					
Competencias a evaluar	1pto.: Muy Básico	2ptos.: Básico	3ptos.: Medio	4ptos.: Alto	5ptos.: Muy alto
Orientación al cliente					
Comunicación					
Trabajo en equipo					
Planificación y organización					

Lehenik eta behin, gaitasun bakoitza bakarka ebaluatuko da, izangaiak erantzun beharko dituen zenbait galdera/adibiderekkin. Gero, gaitasunen eskalan ebaluatu ahal izango dira, erantzunaren arabera, eta emandako gertaeretan oinarrituta.

Jarraian, gaitasun bakoitzean lortutako puntuak batuko dira eta emaitza guztizko 20 punturen arabera baloratuko da.

Balorazio-eskala: Gaitasunaren garapena

- **1 puntu: Oso oinarrizkoa.** Gaitasuna oso modu oinarrizkoan garatzen du, lana behar bezala egiteko gaitasunarekin, baina oso modu oinarrizkoan.
- **2 puntu: Oinarrizkoa.** Gaitasuna oinarrizko moduan garatzen du. Moldatzeko gai da, baina ahalegin handia egin gabe.
- **3 puntu: Tartekoa.** Gaitasuna modu neutralean garatzen du, etorkizuneko gertaerei aurrea hartzeko nolabaiteko gaitasunarekin.
- **4 puntu: Altua.** Gaitasuna nabarmen garatzen du eta gertaeren aurrean nolabaiteko erraztasunez moldatzen da.
- **5 puntu: Oso altua.** Gaitasuna bikain garatzen du eta erraztasunez eta balio erantsia emanaz moldatzen da gertaeren aurrean.

Proba informatikoaren gehieneko puntuazioa 12 puntu.

Aurreko faseen baturan puntuazio handiena lortu duten **10 pertsonen** proba praktikoa egin beharko dute. Bertan, Excel, Word eta Power Point programa informatikoen gaineko ezagutzei buruzko hiru ariketa egin beharko dituzte. Proba elkarrizketaren ondoren egingo da, jarraian.

GOI-KARGUDUNAREN IDAZKARI lanpostuaren proba praktikoa	
1. ariketa. "Excel"	Zerrendak sortzea. Taula dinamikoak. Grafikoak. Kontabilitatea.
2. ariketa. "Word"	Dokumentuak prestatzea ezarritako irizpideen arabera.
3. Ariketa. "Power Point"	Aurkezpena.

Ariketa bakoitza gehienez lau (4) punturekin ebaluatuko da balorazio-eskala honen arabera:

- **1 puntu: Oso oinarrizkoa.** Gaitasuna oso modu oinarrizkoan garatzen du, lana behar bezala egiteko gaitasunarekin, baina oso modu oinarrizkoan.
- **2 puntu: Oinarrizkoa.** Gaitasuna oinarrizko moduan garatzen du. Moldatzeko gai da, baina ahalegin handia egin gabe.
- **3 puntu: Tartekoa.** Gaitasuna modu neutralean garatzen du, etorkizuneko gertaerei aurrea hartzeko nolabaiteko gaitasunarekin.
- **4 puntu: Altua.** Gaitasuna nabarmen garatzen du eta gertaeren aurrean nolabaiteko erraztasunez moldatzen da.

Zenbait irizpide baloratuko dira, hala nola probak denboraren arabera izandako irismena, informazioaren argitasuna eta informazio garrantzitsuaren bereizi izana.

4. FASEA. AZKEN ELKARRIZKETA ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAN.

Elkarrizketaren gehieneko puntuazioa 20 puntu

Aurreko faseetan puntu gehien lortu dituzten 3 hautagaiak banakako curriculum-elkarrizketara igaroko dira. Elkarrizketa horretan kasu praktikoa bat baloratuko da, eta ezaugarri, gaitasun eta asmo pertsonalak egiaztatuko dira, hala nola hauek: lan-egonkortasuna, konpromisoa, ohitura profesionalak, jarrera edo egokitze gaitasuna.

8.2.- Puntuazioen laburpena:

2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
34	32	20	86

BEDERATZIGARRENA.- HAUTAGAIA AUKERATZEA.

9.1. Hautaketa-prozesuko faseak bukatzean, hautaketa-organoak fase bakoitzean lortutako puntuazioak batu ondoren, **puntuazio oso handiena** duen izangaia kontratatzeko proposamena egingo du.

9.2. Hautagaien artean berdinketa egongo balitz, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeen ordezkariak 100eko 40tik beherakoa den lanbide-profiletan. Horretarako salbuespena izango da beste hautagaien kasuan sexu-arrazoia eragindako diskriminazio-arrazoia ez diren eta neurria ez aplikatzea justifikatzen duten beste arrazoi batzuk izatea (enplegura sarbidea izateko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoa izatea, adibidez).

Aurreko paragrafoan ezarritakoa baztertu gabe, berdinketa hausten duen lehentasunen hurrenkera ondoko irizpideen arabera ezarriko da, hurrenez hurren:

1. 3. eta 4. faseetan lortutako puntuazioaren batura.
2. 2. fasean lortutako puntuazioa.
3. Eusko Jaurlaritzako Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak onartutako urteko Ebazpenaren arabera (agindua zehazteko garaian indarrean dagoena), ikasturte horretan ordezkariak egiteko hautagaiak kudeatzeko prozesurako ordena alfabetikoa zehazten duen letraren zozketaren emaitza argitaratzen da, baita ikasturte horretan dei daitekeen beste edozein hautaketa-prozesutan ere.

Hautaketa-prozesuaren emaitza interesdunei jakinarazi eta <https://www.zibersegurtasun.eus/> webgunean argitaratuko da.

HAMARGARRENA.- DATUEN BABESA.

Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko Lege Organikoak xedatutakoa betez, hautaketa-prozesu honetako partaideei jakinarazten zaie bertan parte hartzeko emandako datu pertsonalak tratatuko dituela ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAK.

ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAREN helbidea honako hau da: Albert Einstein kalea, 46. 01510 PK, Miñao (Araba), telefonoa 945 23 66 36, eta e-maila dpd-dbo@cyberzaintza.eus.

ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAREN DATU BABESARI BURUZKO OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA	
Arduraduna	ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIA.
Helburua	ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAK zure datu pertsonalak tratatuko ditu helburu hauetarako: • Hautaketa-prozesua egiteko eta, dagokionez, langilearen eta ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAREN arteko lan-harremana kudeatzeko.
Legitimazioa	Parte hartzeko eskaera sinatu duen pertsonaren baimena.
Hartzaileak	Ez dira lagako.
Eskubideak	Eskubidea du bere baimena edozein unetan kentzeko, bai eta bere datuetara sartu, horiek zuzendu, ezabatu, haiei aurka egin, mugatu eta eramateko ere. Horretarako, arduradunari zuzendutako idatzia bidali beharko du, zein tratamendu eta zein eskubide erabili nahi duen adieraziz. Datuen tratamenduari lotuta desadostasunen



	bat balego, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara (www.aepd.es) jotzeko eskubidea du.
--	--

Tratamenduaren arduraduna ATE RECURSOS HUMANOS PERSONAS Y EMPRESA SL enpresa izango da:

ATE PERSONAS ENPRESAREN DATU BABESARI BURUZKO OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA	
Arduraduna	ATE RECURSOS HUMANOS PERSONAS Y EMPRESA SL
Helburua	ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAK zure datu pertsonalak tratatuko ditu helburu hauetarako: • Hautaketa-prozesua egiteko eta, dagokionezan, langilearen eta ZIBERSEGURTASUNeko EUSKAL AGENTZIAREN arteko lan-harremana kudeatzeko.
Legitimazioa	Parte hartzeko eskaera sinatu duen pertsonaren baimena.
Hartzaileak	Ez dira lagako.
Eskubideak	Eskubidea du bere baimena edozein unetan kentzeko, bai eta bere datuetara sartu, horiek zuzendu, ezabatu, haiei aurka egin, mugatu eta eramateko ere. Horretarako, arduradunari zuzendutako idatzia bidali beharko du, zein tratamendu eta zein eskubide erabili nahi duen adieraziz. Datuen tratamenduarekin lotuta desadostasunen bat balego, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara (www.aepd.es) jotzeko eskubidea du.

I. ERANSKINA

HAUTAKETA PROBETAN ONARTUA IZATEKO ESKAERA		
"Goi-kargudunaren idazkaria"		
DATU PERTSONALAK		
IZENA		
ABIZENAK		
NAN/PASAPORTEA		
JAIOTEGUNA ETA JAIOLEKUA		
NAZIONALITATEA		
HELBIDEA		
E-MAILA (ezinbestekoa)		
TELEFONOA		
GIDABAIMENA	<input type="checkbox"/> Bai	Mota:
PROZESUKO HIZKUNTZA	<input type="checkbox"/> Euskara	<input type="checkbox"/> Gaztelania
Desgaitasuna duen pertsonaren legezko izaera aitortuta al duzu (% 33koa edo handiagoa)?		
<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez		
Beharrezkoa izanez gero, zehaztu zer egokitzapen eskatuko duzun:		

ATXIKITAKO DOKUMENTAZIOA	
<input type="checkbox"/>	NANaren edo dokumentu baliokidearen kopia
<input type="checkbox"/>	Gidabaimenaren kopia.
<input type="checkbox"/>	% 33ko edo gehiagoko desgaitasuna ziurtatzeko txartela (dagokionean).
<input type="checkbox"/>	Titulu akademikoen kopia.
<input type="checkbox"/>	Euskarako titulu/ziurtagiria.
<input type="checkbox"/>	Ingeleseko titulu/ziurtagiria.
<input type="checkbox"/>	Beste hizkuntza batzuetako titulu/ziurtagiria.
<input type="checkbox"/>	Beste titulu/ziurtagiri batzuk.
<input type="checkbox"/>	Administrazioak edo enpresak emandako ziurtagiria/k, honako hauek zehaztuz: betetako lanpostua, betetako eginkizunak, kontratuaren iraupena eta dedikazioaren ehunekoak.

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU eskaera honetan aipatzen diren hautaketa-probetan onartua izatea, eta ADIERAZTEN DU egiazkoak direla eskaera honetan jasotako datuak, eta deialdiko oinarrietan zehaztutako baldintza guztiak betetzen dituela. Hori guztia erantsitako dokumentazioaren bidez egiaztatu du.

Horrez gain, behean sinatzen duenak adierazten du, hurrengo paragrafoko laukitxoak markatuz, baimena ematen diola ZIBERSEGURTASUNNEKO EUSKAL AGENTZIARI bere datuak (lanpostu honen deialdiarekin lotutakoak eta beste eranskin batzuetakoak) tratatzeko:

- Nire datu pertsonalak tratatzeko baimena ematen diot ZIBERSEGURTASUNNEKO EUSKAL AGENTZIARI.

.....(e)n, 2023.....(e)ko.....ren.....(e)an

Sinatuta: